



Gizarte-larrialdietarako laguntzen bateragarritasuna diru-sarrerak bermatzeko errenta eten eta iraungitzearekin

Arartekoaren 3/2020 Gomendio Orokorra,
2020ko ekainaren 12koa

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo



Arartekoaren 3/2020 Gomendio Orokorra, 2020ko ekainaren 12koa.

Gizarte-larrialdietarako laguntzen bateragarritasuna diru-sarrerak bermatzeko errenta eten eta iraungitzearekin.

I. SARRERA

Arartekoak, herritarrei arreta ematean eta gizarte bazterketa egoeran egoteko arriskua duten pertsonen kexak izapidetzean detektatu du alor horretan zailtasun batzuk daudela, eta zailtasun horiek egoera hori areagotzen dutela eta familiak eta pertsonak sozialki ahultzen dituztela.

Zehatzago, pertsona horiek erakunde honetan egindako kexen bidez azpimarratu dute oso zaila dela beraientzat oinarrizko beharrak betetzea, eta horrenbestez, udaletako gizarte zerbitzuetara joaten direla beraien inguruabar pertsonalen eta sozialen berri ematera eta laguntza eskatzera, bizi duten gizarte bazterketa egoera larria areagotu ez dadin.

Pertsona horien arabera, gizarte zerbitzuetan esan zieten gizarte larrialdiko laguntzen eskaerak (GLL) ukatu egingo zitzaizkiela, izan ere, diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) jasotzeko baldintzak betetzen zituzten; eta hori guztia, albo batera utzita prestazio horiek kudeatzen dituen erakundeak, Lanbidek, laguntza horiek etetea edo iraungitzea. Dirudienez, ez lirateke kontuan hartuko ezta ere inguruabar hauek: etenaldien iraupena, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskaerei beharrezko denboran ez erantzutea ezta etete edo iraungitze ebazpen baten aurrean berraztertzeo aukerazko errekurtsioa ebazteko zain egotea ere.

Modu paraleloan, erakunde honek herritarrei arreta emateko bulegoetan eta kexak izapidetzean egiaztatu zuen egoera horien aurreko erantzunak ezberdinak zirela gizarte larrialdiko laguntza eskaerak aurkezten ziren tokiko administrazioen arabera.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak ofizioz gai hau lantzea erabaki zuen, eta horrekin hasteko, gomendio orokor honen oinarri den analisi juridikoa egiten hasi ginen.

Modu horretan, arazo horri buruzko informazioa izateko eta Ararteko erakundea sortu eta arautzeari buruzko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 10. artikulutik 12. artikulura xedatutakoetan oinarrituz ¹, erakunde honek, **Euskal Autonomia Erkidegoko** (EAE) ausazko udalen lagin bati (zehazki, hiru lurralde historikoetako tamaina eta ezaugarri ezberdinetako 21 udali), eskari bat bidali die, honako hauei hain zuzen ere: Agurain, Artziniega, Laudio, Iruña Oka, Legutio, Oion, Vitoria-Gasteiz, Amorebieta-Etxano, Barakaldo, Bermeo, Getxo, Mungia, Zalla, Bilbo, Andoain, Eibar, Legazpi, Zumaia, Irun, Tolosa eta Donostia.

Kontuan hartu behar da, Arabako udalerriek, Gasteizek, Laudiok eta Amurriok ez ezik, gizarte larrialdiko laguntzak kudeatzeko eskumenak eta funtzioak Arabako Foru Aldundiari eskuordetu dizkietela, eta beraz, erakunde honek, foru administrazio horretara ere jo du informazio bila. Gainera, Bizkaiko zenbait eremutan gizarte zerbitzuak udalerrri txikiagoak bateratzen dituzten amankomunazgoetan kudeatzen dira.

Egindako lankidetzan eskarian, udalek beraien iritzia emateko aurretiazko zenbait gogoeta jaso ziren, eta berariaz eskatu genien gai hauei buruzko informazioa:

- Udaleko gizarte zerbitzuek zein irizpide erabiltzen duten gizarte larrialdietarako laguntzak eta udalaren prestazio ekonomikoak aitortzeko, eta hala badagokio, udalaren prestazio ekonomikoetako buruzko araudiaren eta aplikatzen diren irizpideen kopiak.
- Ea udaleko gizarte zerbitzuetan gizarte larrialdiko laguntzak eta udaleko prestazio ekonomikoak ematen zaizkien diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria etenda edo iraungita duten pertsonetara, edo eskaria aurkeztu eta bi hilabetera, laguntza horiek jasotzen ez dituztenei.
- Ea, diru-sarrerak bermatzeko errentan edo etxebizitzarako prestazio osagarrian atzerapenak gertatuz gero, aukerarik dagoen aurreratutako zenbatekoa itzultzeko akordioa egiteko, diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria eman ondoren jasotako atzerapenak ordainduz hain zuzen ere.
- Ea, adingabeak dituzten familien kasuan, gizarte larrialdiko laguntzak eta udaleko prestazioak ukatzeko erabakia hartzean, kontuan hartzen den adingabeen interes gorenak.

¹ 11garren art.

Arartekoari dagokio:

a) Herritar bati nahiz herritar talde bati doazkion eta bederatzigarren Atalean esandako erakundearen egintza edojokabideak garbitzeko arakaketak hasi eta egitea.

b) Dagokien ihardutze-sailei, herrilariari edo hoiengan lanariburuei aholkuak ematea edo legeko egitekoak gogoraraztea, legez kontrako edo bidegabekeriaren egintzak zuzentzen edo Arduralaritzaz-zerbitzuak hobetzea lortzen saiatzeko.

Jasotako erantzun asko adierazgarriak eta osatuak izan dira, eta horiei esker, arazo horri buruzko hainbat alderdi ezagutu ahal izan ditugu. Horrez gain, egiaztatu dugu ezberdintasunak daudela udalerrien jarduteko moduen artean. Zenbait udalerritan, gizarte larrialdiko laguntzak eta udal prestazioak ematen zaizkie diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea etenda edo iraungita duten familiei, baita ere laguntza horien emakidan atzerapenak gertatzen diren kasuetan. Alderantziz, beste udalerrri batzuetan, inguruabar berdinetan, ez dizkiete gizarte larrialdiko laguntzak edo bestelako udaleko laguntza ekonomikoak ematen.

Gainera, zenbait udalerritan prestazio ekonomikoak aurreratzea adosten dute, diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria atzeratzen diren kasuetan, eta hala, onuradunek konpromiso bat hartzen dute, hau da, diru-sarrerak bermatzeko errenta egikaritzean, udal administrazioari mailegua itzuliko dietela adierazten dute, horretarako, eskaria egin zen egunetik atzerapenen kontzeptuan jasotako zenbatekoak erabiliz. Aldi baterako irtenbide hori, hala ere, ez dute aplikatzen beste udalerrri batzuetan, eta horietan, ez dute laguntza aintzatesten udal laguntzaren eskatzailea diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaria ebazteko zain dagoenean. Azken finean, egiaztatu da udaletako gizarte zerbitzu guztiek ez dutela **irizpide berdina aplikatzen** Arartekoak jarduketan honetan galdetutako kasuetan.

Ofiziosko jarduketa honen esparruan erakunde honek galdetutako udalek jakinarazi dute kezkatuta daudela gai batzuei dagokionez, eta horiei buruz duten iritzia ere azaldu dute. Informazio horrekin, arazo honetan ezinbestekoak diren zenbait elementu azpimarratzen dira, eta hausnarketa sakonagoa egin daiteke gaur egungo eredia hobetzeari dagokionez, hori guztia, gomendio orokor honetan zehazten delarik.

Kontuan hartuz arazo bat zuzentasunez aztertzeko garrantzitsua dela arazo horren inguruabarrak kontuan hartzea, udalek emandako erantzun esanguratsuenak laburtu aurretik, beharrezkoa da udal horiek Arartekoari emandako erantzunetan "motu propiotzat" jotako inguruabarrak aipatzea:

Lehenik eta behin, udalek beraien eskumenak aipatzen dituzte, baita udaleko gizarte zerbitzuek gizarte bazterketa egoeran egoteko arriskuan dauden edo egoera horretan dauden pertsonei laguntzeko eta horien gizarteratzea sustatzeko egiten dituzten lanak ere. Era berean azpimarratu zuten, araubidea modu askotan interpretatu daitekeela (horixe egiaztatzen da baita ere jasotako askotariko erantzunetan). Horrez gain, azpimarratu zuten arazo horri erantzuna emateko udal administrazio bakoitzak faktore ezberdinak dituela, esaterako, aurrekontu kontsignazioa. Izan ere, udal batzuk aurrekontu zuzkidura espezifiko batekin osatzen dute Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetatik eratorritako gizarte larrialdiko laguntzaren esleipen orokorra. Aurrekontu osagarri hori tokiko aurrekontuetatik sortzen da, eta horri esker, askotariko prestazio ekonomikoak arautzen dira (udaleko mantentze prestazioak, partekatutako lan plana babesteko laguntzak, gizarte bazterketa saihesteko diru-sarrerak bermatzeko udaleko laguntzak, aldizkakoak ez diren udaleko laguntzak, eta abar). Alderantziz, beste udal batzuk

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu kontsignazioa dute bakarrik. Udalek aipatu dituzten beste faktore batzuk hauek dira: gizarte larrialdiko laguntzen izaera berezia eta diru-sarrerak bermatzeko sistemarekin lankidetzan eta koordinazioan jarduteko beharra.

Datu garrantzitsu gisa, udalek adierazi dute baliabide gutxi dituztela gehitzen doazen behar ezberdin guztiei aurre egiteko, eta beraz, ezinbestekoa da lehentasunak ezartzea eta eskuragarri dauden funtsak modu parekidean banatzea, eta hori guztia, zaugarritasun egoerei erantzuna emateko. Askotan, udal administrazioek esfortzu handia egiten dute beharrezko aurrekontu kontsignazioa falta denean larrialdizko beharrak erantzunik jaso gabe geratzea ekiditeko. Laguntza eskari larrienen artean daude etxebizitzarako laguntzak, eta beraz, udal laguntza asko (gizarte larrialdiko laguntzak eta udaleko laguntza bereziak) eta beste zerbitzu batzuetako kudeaketaren zati bat (harrera pisuak, eta abar), eskatzaileen etxebizitza beharrei erantzuteko erabili behar dira, arrazoi bat edo bestea dela-eta, etxebizitzaren sistema publikotik kanpo geratu daudelako, eta hori guztia, Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen arabera, etxebizitzarako eskubide subjektiboa izan arren.

Gainera, udal horiek zehaztu dute udaleko gizarte zerbitzuen funtzio nagusia eta bakarra ez dela laguntzak ematea, izan ere, **gizarte zerbitzuen funtzio nagusia gabezia pertsonalak eta sozialak dituzten pertsonen gizarteratzea sustatzea da**, eta hori guztia egiteko, nagusiki, zeregin teknikoak gauzatu behar dira.

Bukatzeko, Koronabirus Sars-Covid 19ak sortutako osasun krisia dela-eta aplikatutako neurriak kudeatzean zailtasunak sortu dira zaugarrienak diren kolektiboetan, eta horrek, agerian utzi du gizarte zerbitzu indartsuak eta malguak izan behar ditugula. Eusko Jaurlaritzak bere zeregina indartu du eta salbuespenezko kreditu osagarriko partida bat esleitu du 2020ko ekitaldirako, aurrekontu programa berri honetan "COVID-19ak sortutako krisiaren aurkako neurriak"².

Gomendio orokor honetan aurretiazko egoera aztertzen da, eta nahiz eta COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaritzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jartzearen ondorioz gomendioaren argitalpena atzeratu izan, gomendioaren edukiaren indarraldia eta garrantzia mantendu egiten dira, zaugarritasun egoerei arreta emateari dagokionez.

Haxe da Arartekoak egindako informazio eskaerei erantzunez jasotako erantzun guztien eduki nagusia:

² **Euskadi**. AGINDUA, 2020ko apirilaren 8koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bitartez bigarrenez aldatzen baita Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2019ko abenduaren 17ko Agindua, Gizarte Larrialdietarako Laguntzetako gastu espezifiko bakoitzeko 2020. urtean gehienez eman daitezkeen diru-kopuruak ezartzen dituena, laguntza horietarako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak adierazten dituena, eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzarentzat 2020rako aurrekontu-mugak finkatzen dituena. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak programaren kreditua handitzeko aparteko diru-partida emendatzea, 2020an, «Covid-19ak eragindako krisiaren aurkako neurriak» (12291) aurrekontu-programa [linean]. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2020ko maiatzaren 6a, 72. zk. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2020001856>

II.- INTERESEKO ZENBAIT ALDERDI

1. Udaletako gizarte zerbitzuen zeregina, arrisku egoeran edo gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen arreta ematean eta horien gizarteratzea sustatzean

EAEko udal gizarte zerbitzuek lan handia egiten dute sistemaren eratze orokorrean beraien zereginak mugatzeko, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legea onetsi zenetik aurrera. Zeregin hori betetzeko, prestazio teknikoak, ekonomikoak eta teknologikoak dituzte (14. artikulua). Horrez gain, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte diagnostikoa egiteko tresnari buruzko maiatzaren 28ko 353/2013 Dekretua onestearen bitartez, esku-hartzeko tresna komunak eratu ziren. Hori guztia, Arartekoak sakontasunez aztertu du hainbat aparteko txostenetan: EAEko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoerari buruz 1999an egindakoak eta horien 2010eko eguneratzeak, eta berriena, 2016koa, udaletako gizarte zerbitzuei buruzkoa.

Lanbide -Euskal Enplegu Zerbitzuaren urriaren 13ko 3/2011 Legearen eta Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legearen bitartez, Lanbideri eskualdatu zitzaion diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria kudeatzeko zeregina, eta horrenbestez, laguntza ekonomikoak kudeatzea ez da udaletako gizarte zerbitzuen zeregin nagusia; hala ere, gizarte zerbitzuek gauzatzen duten lanaren osagarri gisa, gizarte larrialdiko laguntzak ematen jarraitzen dute. Horren ondorioz, harreman eta laguntza alorretako prestazio ekonomikoak dira udaletako gizarte zerbitzuek gizarte zaugarritasun egoerak jorratzeko erabiltzen dituzten laguntza nagusiak.

Inguruabar horretan, gizarte zerbitzuek emandako prestazio teknikoak are zentralagoak dira gaur egun. Hala, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzu zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 6. artikuluan definituta dago prestazio teknikoak (eta teknologikoak) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren **prestazio propioak** direla, eta beraz, gizarte zerbitzuen ezaugarri nagusiak, elkarrekiko harremana eta gizarte laguntza dira.

Hala ere, zaugarritasun egoeran dauden herritarrek eskari asko egiten dituzte oraindik ere udaletako gizarte zerbitzuetan. Familietako kideak langabezian daudelako edo adinagatik, osasun inguruabarrengatik edo diskriminazioa sufritzen duten kolektiboetan egoteagatik familietan diru-sarrerak falta direlako, bizirauteko udaletako gizarte zerbitzuetan laguntzak eskatu ohi dituzte herritarrek. Hori gertatzearen arrazoia da, denbora askoan zehar, pertsona zaugarrienak, legegintza, eredu eta administrazio publikoetako eskumenen desbideratzeen berri ez dutenak, zerbitzu horietara joan izan direla gizarte bazterketa egoera areagotu izan denean eta berehalako eta hurbileko erantzunak behar izan dituztenean. Horrez gain, etxebizitza beharrak dituzten pertsona guztientzat behar adina etxebizitzarik ez egotean eta pertsona horiek merkatu pribatuan etxebizitza baten

alokairua ordaindu behar izatean³, zailtasunak sortzen dira, eta horien ondorioz, pertsona batzuk laguntza eskatzen dute udaleko gizarte zerbitzuetan, etxebizitzatik kanporatuak izateko arriskuan daudelako; horrez gain, gizarte zerbitzuetan laguntza eskatzea da era berean bestelako gizarte beharrak jorrazteko aurretiazko premisa, elementu horiek guztiak Emakunderen -Emakumeen Euskal Institutua- 2016ko txostenean jasota daudelarik: “[Egoitzazko bazterketa larria EAEn, genero ikuspegia kontuan hartuz](#)”⁴; horrez gain, Bizitegik 2019an gai horri buruzko txostena egin zuen baita ere⁵.

Araubide testuinguru honetan, guraso bakarreko familiak, nagusiki beraien kargura seme-alabak dituzten emakumeak, dira pobrezia egoera larrienak sufritzen dituztenak, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egindako azken txosten eta diagnostikoetan, eta maila anitzeko beste erakunde batzuk egindako txostenetan jasotzen den moduan.⁶

Udaletako gizarte zerbitzuek, nahiz eta beraien zereginen artean ez egon, eskatzaileei gai horien inguruko arreta eman behar diete, eta laguntza eskaini behar diete diru-sarrerak bermatzeko eta etxebizitza izateko beharrei aurre egiteko, askotariko arazoak direla-eta horiek beteta ez daudenean, besteak beste ez dagoelako babes publikoko etxebizitza nahikorik edo eskatzaileek ez dituztelako betetzen etxebizitza araubidean aurreikusitako betekizunak etxebizitza bat adjudikatzeko edo alokairua ordaintzeko edo diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoak jasotzeko “(...) *las situaciones de dificultad económica (pobreza, pérdida de vivienda...)* han crecido de forma espectacular y fluyen hacia los servicios sociales, a los que se les supone una función de última red de protección para la que no están diseñados” (Aguilar, 2014, 37. orri.)⁷. Beste batzuetan, eskarien administrazio izapideek atzerapen handiak izan ohi dituzte.

³ 2018ko txosteneko etxebizitzari buruzko II. kapituluaren (4.1. puntua) jakinarazten da Arartekoak ofiziozko jarduketa hasi zuela zenbait kolektiboetako pertsonen sektore pribatuan etxebizitza eskuratzeko dituzten arazoengatik, eta bereziki, gutxiengo etnikoari eta kulturalari dagokienez. Horrez gain, kontzientziazio, prebentzio eta diskriminazioaren aurkako jarduketari buruzko informazioa ere ematen da.

⁴ **Emakunde.** *EAEko bizitegi-bazterketa larria genero-ikuspegitik* [linean]. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2016. Hemen eskuragarri: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes/eu_emakunde/adjuntos/txostena.37.bizitegi_bazterketa_larria.pdf

⁵ **Bizitegi Elkarte.** Bizitegi-bazterketa egoeran dauden emakumeen errealitateari buruzko ikerketa [linean] Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2019. Hemen eskuragarri: https://www.bizitegi.org/wp-content/uploads/2019/07/Emakumeen-errealitateari-buruzko-ikerketa_eus.pdf

⁶ **Emakunde.** *Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa gizarte-bazterketa eta txirorasunean* [linean]. Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2018. Hemen eskuragarri: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/eu_def/adjuntos/exclusion_pobreza_eu.pdf

Euskadi. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *2018ko Behar Sozialei buruzko Inkestaren PGDI/Pobrezia Moduluaren Txostena* [linean]. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2019. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/dokumentazioa/2019/2018ko-behar-sozialei-buruzko-inkestaren-pgdipobrezia-moduluaren-txostena/web01-s2enple/eu/>

Udaletako gizarte zerbitzuetan, egunero bidegurutze antzeko batean egon ohi dira, izan ere, gizarte larrialdiko egoerei arreta eman behar diete, eta aldi berean, eta ahal duten neurrian, askotariko arrazoiak direla-eta beste sistema batzuen bitartez beharrak beteta ez dituzten pertsonen behar horiei “erantzun” behar diete, eskatzaileek ez dutelako baliabide nahikorik bizirauteko eta etxebizitzako oinarrizko beharrak betetzeko. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak emandako aurrekontu zuzkidura bat izaten dute, aldizkakoak ez diren beharretarako gizarte larrialdi egoerei erantzuna emateko, baina zuzkidura hori **ez da nahikoa** eskari guztiei erantzuteko, eta gainera, hori ez da zuzkiduraren helburua. Horrez gain, gizarte zerbitzuetako arduradunek eta teknikariek bokazio soziala izan ohi dute, eta badakite zein ondorio dituen diru-sarrerarik edo etxebizitzarik ez izateak, eta gainera, gizarte bazterketa prozesuan inguruabar horrek arriskua gehitu dezake, izan ere, egoera hori areagotuz gero, etorkizuneko gizarte esku-hartzea konplexuagoa litzateke. Eta hala ere, oinarrizko eta larrialdizko beharrei erantzuna ematea, edozein **gizarte esku-hartze egikaritu ahal izateko baldintzatzailea** izan daiteke. Gizarte esku-hartzearen izaera boluntarioa kontuan hartuz, laguntzak ematea edo ez ematea, zoritxarrez, faktore erabakigarria da laguntza harremanean konfiantza zehazteko eta gizarteratze prozesua finkatzeko.

Bestalde, baliteke pertsona horiek, hasiera batean, etxebizitzako alokairua ordaintzeko edo seme-alaben oinarrizko beharrei aurre egiteko diru-sarreraren faltaz gain, beste arazo batzuk izatea, besteak beste, elikagaiak eta energia ordaintzeko arazoak izatea, eta beraz, udalek jakinarazi dute, nahiz eta hasiera batean horretarako eskumenik ez izan, behar horiek ez badituzte jorratzen, pertsona horien egoera larria areagotzeko arriskua dagoela, eta etorkizuneko esku-hartzea are konplexuagoa izango litzatekeela.

Xehetasunez azaltzeko, hona eman zenbait udalen erantzunetan jasotakoak:

“Los Ayuntamientos dentro del sistema de protección social somos como se indica “la última malla de protección” pero el eslabón más débil dentro del conglomerado competencial. Por un lado, no tenemos ninguna influencia en las decisiones que adoptan Lanbide en la suspensión o extinción de las RGI/PCV pero recae en los servicios sociales municipales evitar la desprotección. Por lo que cualquier mecanismo de mejora de la situación de esas personas pasa por flexibilizar, mejorar y cambiar criterios en Lanbide. Y por otro lado, para que los servicios sociales municipales tengan una mayor capacidad protectora se les debe dotar de una mayor aportación económica en AES y refuerzo de personal. Cuestión ambas que deben ser objeto de reflexión del sistema de protección social”.

“Bestalde, azpimarratu nahiko nuke, beste babes sistemetako defizita Udaletxeetara iristen dela, agian aurrekontu gaitasun txikiena duen administrazioa hau delarik, modu subsidiarioan esku hartu behar dutelarik”.

⁷ **Aguilar Hendrickson**, M. Hacia un replanteamiento de los servicios sociales en España. *Documentación social* [linean], 175. Zk., 2014, or. 35-63. Hemen eskuragarri: <https://caritas-web.s3.amazonaws.com/main-files/uploads/2015/07/DS175-Servicios-Sociales-incertidumbres-y-retos.pdf>

“Izan be, beharrezana eta eskaria, erantzuna emoteko baliabideak baino handiagoa danean, buru haustek handiak dira, legeak esaten dauana oinarritzat hartuta, gure herritarren beharrezanein erantzuna emoteko eta gizarte ongizateaz ahalik eta herritar gehin etetara hurbiltzeko konpromezua bermatzeko. Hori dala eta, erakundeen laguntza gehiago eskatzea guztiz bidezkoa da, bate bes, egoera zailak bizi dabean () merezi daben laguntza eskaiani ahal izateko urteko jasotzen dogun Gizarte Larrialdietarako laguntezen aurrekontua handituz”.

2. Araubidea interpretatzea

Kontsultatutako udalek adierazi dute gizarte zerbitzuen sistemaren ahultasunetako bat araubide bera interpretatzeko aukera asko egotea dela, izan ere, interpretazio bat edo bestea egiteak, inpaktu handia du gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen ematen zaien arretan.

Zenbait udalek, araubidea interpretatzen dute kontuan hartuz prestazio ekonomikoak eskuratzea mugatzen duten zenbait baldintza, eta beste batzuk, gizarte diagnostikoan eta gizarte laneko teknikarien balorazioan oinarritzen dira. Hona hemen xehetasun gehiagorekin, kontsultatutako udalen erantzunak:

“Gizarte larrialdietarako laguntzak ematen zaizkie DSBE/EPO etenda edo iraungita dutenei, Udaleko gizarte langileen ustez etetea edo iraungitzea gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen berez dituzten inguruabarrengatik gertatu bada.”

“DBSE/EPOrako eskubidea dutenen kasuan, edo-eta prestazio hauek etenda edo iraungita dituztenen kasuan, aztertu egiten ditugu egoera banan-banan: etetearen edo iraungitzearen arrazoiak, ebazpena ateratzearen arrazoiak, pertsona edo familiaren egoera zein den eta nola eragiten dien prestazio honen gabeziak beren egunerokoak, ondorioak zuzenki kalteberatasun-edo ahultasun-egoera berezian dauden pertsonen eragiten ote dien(haurrak, adinekoak, mendekotasun-egoerak...). Hori aztertuta, adosten da eskatzaileekin esku-hartze-plana, egiten da egoera horren aurreko proposamen teknikoak, eta hartzen da dagokien erabakia”.

“Zuen bulegoari begitandu jako kasu zehatz batzuetan Lanbidek ez daukala zuzentasunez jokatu eta, horregaitik, zalantza egin dau, prestazioak eten edo kendu behar ote jakezan eragindako pertsonen. Nire eritxian, gure erakundeak ez dau hori egin behar. Gure gizarte-langileek ikusten badabe DSBE edo EPO eten edo iraungitzeko ebazpen bat onartu danean ez dala kontuan hartu aitaturako betekizun hareek ez betetzeko interesdunak euki ahal dauzan arrazoiak, bere testuinguru soziala kontuan hartuta, gizarte-txosten bat idazten dabe, testuinguru hori azaltzeko eta erabiltzaileak jagokon errekurtsioagaz batera aurkeztu ahal izateko.”

“...Programari dagokionez, gizarte zerbitzuek Lanbideren zigor administrativo baten ondorioz DSBE eten zaien bizikidetzaren unitateei ematen dizkiete, betiere, etendura horren arrazoiak izan ez denean zabarkeria edo ekonomia- nahiz ondare-egoerari buruzko informazioa ezkutatu izana eta BU osatzen duten pertsonak behar gorrian badaude edota BUko kideren batek gaixotasun larria badu”.

“DSBE baldintzak ez betetzeak, kasu gehienetan, GLLen baldintzak ez betetzea dakar, araudi berberan oinaturriko diru-laguntzak dira eta. Nahiz GLLek baduten beste baremo ekonomiko bat, baldintzen gehiengoa berbera da. (...) Gainera, betebeharrak oso antzekoak eskatzen dira GLLetan, beraz, egoera honetan dagoen herritar batek, ez bakarrik ez ditu bere eskubide ekonomikoak balioarazi; baizik eta GLLetarako baldintzak ez ditu betetzen propioki, DSBEtik etorri edo ez. (...) Bestalde, prestazioaren azkentzea betebeharrak ez betetzea edota arau-haustea bada, adierazten da ezingo dela DSBE eskatu urtebetean. Penalizazio hori duen herritar batek GLL eskaera egitea egokia da??”

3. Aurrekontu kontsignazioa

Askotan, eta nagusiki udal handietan, Eusko Jaurlaritzak kontsignatutako aurrekontuaz gain, aurrekontu zuzkidura propioa izaten dute. Aurrekontu osagarri horren kudeaketa irizpideak udalak oinarri arautzaileetan zehaztutakoak dira. Aurrekontu osagarri bat xedatzean, ezberdintasunak sortzen dira eskaintako gizarte arretan; udaletan bakarrik Eusko Jaurlaritzak gizarte larrialdiko laguntzetarako emandako aurrekontua egonez gero, udalaren lana baldintzatuta egongo da, nahiko baliabiderik ez dutelako izango. Aurrekontu kontsignazio propioak eta araubide banatua duten udaletan araubide espezifiko hori aplikatzen dute. Hala ere, ikusi dugun moduan, bakarrik gizarte larrialdiko laguntzak jasotzen dituztenei dagokienez, araubide bera modu ezberdinetan interpretatu ohi da antzeko inguruabarrak kontuan hartuz.

Horrek, berriz ere agerian uzten du EAEko udaletako gizarte zerbitzuek egoera ezberdinak dituztela, eta gai hori, Arartekoak aparteko txostenetan jorratu izan du, aurretik aipatu direnak hain zuzen ere. Hala, eskubideak egikaritzeko berdintasun eskubidea ez dago bermatuta, edo eskubide hori baldintzatuta egoten da araubidea interpretatzeko modu ezberdinak direla-eta. Zenbait udalek horri buruz hitzez hitz adierazitakoak azpimarratu dira:

“Erakunde mailan Euskadiko Autonomia Erkidegoko udalerrri guztietan gizarte-larrialdietarako diru-laguntzen zenbatekoen homogeneousuna ahalbidetuko duen formularen bat aurkitu beharko litzatekeela uste dugu eta diru laguntzak emateko irizpideak bateratu beharra ikusten dugu. Hauek izan daitezke aukerak:

- *Eusko Jaurlaritzak gizarte-larrialdietarako diru-laguntzen esleipena handitzea.*
- *Eusko Jaurlaritzak, Arartekoak eta EUDELeK Udalek diru-ekarpena handitu behar dutela ikusten badute, Dekretu bidez arautu beharko litzateke hori, formula proportzional bat bilatuz udalerrri guztiek neurri berean jar dezaten: (adibidez, Udal bakoitzak ehuneko X jar dezala Eusko Jaurlaritzaren ekarpenarekiko).”*

“Tampoco compartimos la preocupación por la disparidad de criterios a la hora de aplicar la normativa relativa a las ayudas municipales. Si el legislador ha definido un sistema en el que participan todos los niveles administrativos y ha dejado cuestiones sin regular sólo pueden entenderse que cada institución debe tener

libertad para regular esos aspectos con los criterios políticos y técnicos que considere adecuados. Otra cuestión sería que se cuestione la actual estructura del sistema de Servicios Sociales y abogar por un sistema único".

4. Gizarte larrialdiko laguntzen izaera

Informazio eskaerei erantzunez, udalek emandako erantzunetan adierazten da beste zailtasun bat dagoela, zehazki, gizarte larrialdiko laguntzen kudeaketa egiteko modua, izan ere, bi erakunde maila daude (Arabán, hiru), eta ondorioz, bi esku-hartze ekonomiko egin behar izaten dira. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak urtero agindu bat argitaratu behar du. Horren bidez, Gizarte Larrialdietarako Laguntzetako gastu espezifiko bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diru-kopuruak eta laguntza horietarako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak finkatzen dira; eta, horretaz gain, EAEko lurralde historiko eta udal bakoitzaren urteko aurrekontu mugak finkatzen dira.

Diru-laguntzak antolatuta dauden moduan, hainbat giza baliabide eta baliabide ekonomiko behar dira udal bakoitzak laguntza horiek urtero eduki ahal izateko. Bestalde, nahiz eta aldizkako laguntzak ez izan, batzuetan aldizkako beharretarako ematen dira, besteak beste, etxebizitzaren prezioak ordaintzeko.

"Las ayudas de emergencia social requieren de una revisión no sólo en lo que se refiere a la consignación económica sino también a su carácter de emergencia y de no periódicas, ya que son unas ayudas en su mayoría periódicas que no se conceden de un modo inmediato. Desde la Orden hasta la aprobación de los presupuestos, solicitud, concesión...etc. No son ágiles. Y son un complemento económico a unas pensiones bajas y unos salarios mínimos"

"Por otro lado, consideramos que la naturaleza de "emergencia" de estas ayudas se ha desvirtuado dado que se han convertido en ayudas destinadas a sostener periódicamente a familias con economías ajustadas principalmente para costear la vivienda. Perder la naturaleza de emergencia implica que ya no se vea como necesaria la intervención de una profesional ni la valoración de la situación de emergencia".

5. Lanbiderekin lankidetzak

Lanbiderekin koordinazioan eta lankidetzan aritzearen garrantzia Arartekoak Eusko Legebiltzarrean aurkeztu dituen urteko txostenetan jaso izan da, eta bereziki, ohiz kanpoko txosten honetan: *"EAEko udaletako gizarte zerbitzuen egoera. Gaur egungo egoera eta hobekuntza proposamenak, 2016"*. Horrez gain, beste txosten bat ere egin zen: *"Diagnostiko-txostena, Lanbideak diru-sarrerak bermatzeko*

errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017”⁸.

Hainbat erakunde mailetatik gizarte bazterketa egoeran egoteko arriskua duten pertsonen arreta emateko, ezinbestekoa da horien artean koordinazioa egotea. Horri dagokionez, udaletako erantzunak ere askotarikoak izan dira:

“Azkenik esan zu buru za ren erakundeak, indar guztiak jarri beharko lituzkeela Lanbideri neurri hauek eskatzeko eta jakinarazteko eta lan egiten duten kolektiboan hauskortasuna onartzeko. Bestalde, kontzientzia izan mundu guztia ez dela epe motzera enpleagarria eta epe ertain edo luze baterako prozesua behar dutela non laguntza ekonomikoak ezinbestekoak diren; eta guztion eginkizuna da ulertzea gure herritar batzuk exigentzi baxuko zerbitzuak behar dituztela, eta sistemen flexibilitatea beharrezkoa dela kolektibo hauek hartatu eta ulertzeko.”

“Askotan, errekursoak aurrera egin dau, eta Lanbideren bulegotik jakinarazo deuskue gizarte-langilearen txostena erabakigarria izan dala erispidea aldatzeko.”

“Compartimos la apreciación del Ararteko de que por parte de las y los trabajadores sociales municipales se pueda dar cuenta a Lanbide de algunas situaciones particulares que no han sido objeto de un adecuado tratamiento por parte de Lanbide, porque de hecho esto ya se hace; sin embargo muchas veces estas comunicaciones o aclaraciones que se remiten por parte (...) no son escuchadas, ni valoradas, ni respondidas, ni admitidas”.

“Por último compartimos la apreciación del Ararteko sobre la necesidad e importancia de coordinación entre distintas administraciones públicas.

En este sentido creemos que sería necesario que hubiera reuniones anuales con Lanbide para aunar criterios, compartir información y aclarar dudas así como con otros municipios de la CAV...”

“Zuekin bat gatoz, (...)en, Lanbiden behar bezalako tratamendua eman ez zaien egoera partikularrak detektatu direla esaten duzunean, gizarte langileak esku hartu duten kasuak barne, ulertuz Lanbidetik oso balorazio zorrotza egiten ari zirela "gure bizilagunak diren pertsonen eskubideei dagokionez”.

“Habría que explorar la posibilidad de implantar un sistema de coordinación estable”.

⁸ **Euskadi. Ararteko.** *Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen* [linean]. Vitoria-Gasteiz: Ararteko. Hemen eskuragarri: http://www.ararteko.eusRecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf

III.- LANKIDETZA ESKARIA DELA-ETA JASOTAKO ERANTZUNAK

Ondoren, udalek emandako berariazko erantzunen laburpena jasotzen da, erantzun horiek zuzeneko eragina izan dutelarik gomendio orokor honen ondorioetarako:

1. Udaleko gizarte zerbitzuek zein irizpide erabiltzen duten gizarte larrialdietarako laguntzak eta udalaren prestazio ekonomikoak emateko, eta hala badagokio, udalaren prestazio ekonomikoari buruzko araudiaren eta aplikatzen diren irizpideen kopiak

Udalek gizarte larrialdiko laguntzak emateko aplikatu beharreko araubidea aipatzen dute, eta gizarte larrialdiko laguntzak ez diren bestelako udal prestazioen oinarri arautzaileak atxiki dituzte, horrelakorik izanez gero.

Beste “udaletako prestazio horiek” ere ez dira aldizkakoak eta larrialdiko eta beharrizanteko egoerei aurre egiteko ematen dira, pertsona horiek gizarte larrialdiko laguntzen jasotzaileak izateko baldintzak betetzen ez badituzte, edo baldintzak betez gero, zenbatekoa baxua denez, ezin baldin badiote beraien beharrizan egoerari erantzunik eman. Arreta pertsonalizatuko plan bati eta jarraipen bati lotuta daude. Laguntzak ematen dituzten udalek eta Arabako Foru Aldundiak programa eta araubide propioak dituzte.

2. Ea udaletako gizarte zerbitzu horietan gizarte larrialdiko laguntzak eta udaletako prestazio ekonomikoak ematen zaizkien diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria etenda edo iraungita duten pertsonen, edo eskaria aurkeztu eta bi hilabetera, laguntza horiek jasotzen ez dituztenei.

Orokorrean, udaletan baloratzen baldin badute beharrizan egoera dagoela eta Lanbideak diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatzeko emandako irizpideekin ados ez badaude, arreta pertsonalizatuko lan plan bati lotutako laguntzak ematen dira. Kontsultatutako udaletan, kontuan hartzen dituzte Lanbideren diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren ukatze edo iraungitze arrazoiak edo eskatzaileen betebeharren ez-betetzeak, **baina udaletan balorazio propioa egiten dute**, irizpide nagusi gisa larrialdizko egoera eta behar errealak kontuan hartuz. Berezi baloratzen dute larrialdizko beharraren egoera axolagabekeria dela-eta edo egoera ekonomikoari eta/edo ondare egoerari buruzko informazioa ezkutatzearren gertatu den. Hala ere, beste kasu batzuetan, udal batek adierazi duen moduan, saihestu egiten dute gizarte larrialdiko laguntzak berehala ematea bestelako laguntzen etetea edo iraungitzea betebeharrak bat bete ez delako gauzatu denean, eta beraz, hiru hilabete egoten dira zain udalaren laguntza kudeatu aurretik.

Zenbait udalek jakinarazi dute gizarte larrialdiko laguntzak ematen dituztela eskatzaileak diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera ebazteko zain dauden aldian. Udal batek adierazi zuen

eskatzaileek diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea etenda izanez gero, gizarte larrialdiko laguntzak ematen dituztela prestazioekin bateragarriak diren kontzeptuekin lotuta. Hala ere, udal horrek beste irizpide bat aplikatzen du, hau da, gizarte larrialdiko laguntzak kontzeptu guztiei lotuta ematea, jasotzaileak diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea iraungita izanez gero.

Salbuespen gisa, udal guztiek gogorarazi dute Etxebizitzarako prestazio osagarria arautzen duen urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 25. artikuluan xedatutakoa. Horren arabera, etxebizitzarako prestazio osagarria eteten denean, ezin izango da gizarte larrialdiko laguntzen espedienterik izapidetu etxebizitzarekin lotutako gastuentzako, salbuetsiz prestazioaren etetea diru-sarrerak gehitu direlako gertatu izana, aldi batean lan-egoera hobetzearen ondorioz.

Bestalde, udal prestazio ekonomiko propioak dituzten udalek, prestazio espezifiko horiek ematen dituzte horiek arautzen dituzten irizpideei eta araubideari jarraituz, **eta beraz, ez dute kontuan hartzen laguntzaren etetea, iraungitzea edo diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskari bat ebazteko zain egotea.**

Alderantziz, beste udal batzuk arrazoitu zuten, gizarte larrialdiko laguntzak subsidiarioak direla, eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren laguntzak osatzen dituztela. Horren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea izanez gero, horiek dira eskatu beharreko laguntzak eta ez gizarte larrialdiko laguntzak, aurrekoek jada estaltzen dituzten kontzeptuetarako erabiltzeko. **Beraz, diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea galduz gero, ezingo lirateke ezta ere gizarte larrialdiko laguntzak eskatu, subsidiarioak eta osagarriak baitira.** Udal horren iritziz, diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren araubideen ez betetzeek gizarte larrialdiko laguntzak jasotzeari eragiten diote, izan ere, laguntza horiek lege berean arautzen dira, edo 19. artikuluan (diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzen duena) eta 48. artikuluan (gizarte larrialdiko laguntza jasotzeko betebeharrak arautzen dituena) jasotako betebeharrak antzekoak dira.

Horri dagokionez, udal batek Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 48. artikuluko g) atalean aurreikusitakoa aipatu du: *“Gizarte larrialdietarako laguntzen xedetik eta helburutik sortzen diren betebeharrak guztiak eta erregelamendu bidez ezarriko direnak”*; horrek, lege horren 19. artikuluan zehazten ez diren betebeharrak barne hartuko lituzke. Beste udal batek adierazi zuen aplikatu beharreko araubidea interpretatzean, gizarte larrialdiko laguntzen irizpideak interpretatzeko, diru-sarrerak bermatzeko errentan eta etxebizitzarako prestazio osagarrian aplikatzen diren irizpide berdinak erabiltzen direla. Udal batek esan zuen, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrek betebeharrak ez betetzearren, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak emandako idazketan abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.3. artikulua aplikatuz, urtebetean zehar diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaririk ezin baldin badute aurkeztu, beraien

iritziz, ez litzatekeela bidezkoa izango "zigor" urte horretan gizarte larrialdiko laguntzak eskatu ahal izatea.

Azken interpretazio hori ez dator bat Arartekoak egindako aurretiazko gogoeta honekin: Gizarte Larrialdiko laguntzen urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 21. artikuluan, Gizarte larrialdiko laguntzen dekretua aldatzen duen urtarrilaren 17ko 16/2017 idazketa berrian, jasota dago beharrianaren egoera erreala eta larrialdikoa izango dela aplikatuko den irizpide zuzentzailea, eta horrez gain, laguntzen kontrako balorazioa ematea aurreikusten da, zenbait inguruabar edo aurrekari kontuan hartuz, uste baldin bada laguntzak behar ez bezala erabiliko direla edo xede duten helbururako erabiliko ez direla. Hala ere, laguntzen egokitasunaren kontrako balorazioa emateko irizpide gisa ez da aipatzen diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea etenda edo iraungita egotea edo eskariaren ebazpenean atzerapenak egotea; aurretiazko gogoeta hori zehaztasun gehiagorekin azalduko da aurrerago.

Beste udal batek, era berean, isiltasun positiboari buruzko araubide aurreikuspena aipatu zuen (abenduarien 23ko 18/2008 Legearen 62. artikulua), adieraziz, diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskariaren ebazpena bi hilabete baino gehiago luzatzen baldin bada, eskaria onesten dela. Nahiz eta udal horrek gogorarazi duen moduan artikulua horretan administrazio isiltasuna aurreikusita egon, garrantzitsua da azaltzea eskatzaileari egotzi ez dakiokeen arrazoia dela-eta ebazpena atzeratzen denean, Lanbidek ez duela eskaria onesten isiltasun positiboa dela-eta, eta hori horrela egiten du, etorkizunean prestazioen erreklamazio prozedurak hasi beharra saihesteko.

Laburbilduz, orokorrean, udal gehienek aurretiazko elementu gisa adierazi dute oinarritzko gizarte zerbitzuek gizarte diagnostikoa egiten dutela, eta aurreikusitako esku-hartze planaren jarduketan barne baloratzen dutela prestazio ekonomikoak emateko aukera, beharrianaren egoera erreala ebaluatu ondoren eta ea aurretiaz eskubide ekonomikoak egikaritu diren edo ez aztertu ondoren. Udal guztiek, arreta pertsonalizatuko plana sortzen dutenean eta diru-laguntza emateko erabakia hartzen dutenean, kontuan hartzen dute diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidea eteteko edo iraungitzeko pertsona horrek izandako jarrera.

Udal batzuen eta besteen arteko **ezberdintasunak** beraz, diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonen egindako eskariei erantzuteko hasierako iritzian dago, albo batera utzita egoera erreala eta laguntza emateko larritasuna, baina azpimarratu behar da, kasu horietan ere, irizpide horrekiko salbuespenak aplikatu ohi dituztela familiaren zaugarritasun egoera eta adingabeak dauden edo ez kontuan hartuz.

3. *Ea diru-sarrerak bermatzeko errentan edo etxebizitzarako prestazio osagarrian atzerapenak gertatuz gero, aukerarik dagoen aurreratutako zenbatekoa itzultzeko akordioa egiteko, diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria eman ondoren jasotako atzerapenak ordainduz.*

Udal gehienek erantzun dute eskaria ebazteko atzerapenak daudenean gizarte larrialdiko laguntzak ematen dituztela, nahiz eta xede bererako izan, eta eskatzaileek konpromisoa hartzen dutela laguntza horiek itzultzeko, ondoren, diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria jasoz gero, uste dutelako, beste administrazio batek berandu jarduteak ez duela kalterik sortu behar herritarrengan.

Zenbait udaletan gizarte larrialdiko laguntzak ematen dituzte eskatzaileek itzultzeko konpromisorik hartu gabe, izan ere, kasu bakoitza xehetasunez aztertuz, uste dute laguntzak beharrezkoak direla, baina adierazi dute, ondoren, itzulketa prozesuak hasteko aukera egon beharko litzatekeela uste badute laguntzen xedea ez dela bete.

Beste kasu batzuetan adierazi dute ez dagoela prestazio horietarako aurrekonturik, eta gizarte erakundeek aukera hori aurreikusi ohi dutela. Horrez gain, adierazi dute udaleko kontu-hartzailtza ekonomikoak ez duela baimentzen maileguak egin ahal izatea, eta beste udal batek gehitu zuen interesak % 0 izango liratekeela eta ez litzatekeela itzulketa bermerik egongo, eta hori guztia diru-laguntzen sistemara egokitzea ez da erraza.

Beste udal batek proposatu zuen laguntzak bikoiztu daitezkeela xede berarekin, eta administrazio karga eta erabili beharreko baliabide materialak biderkatuko liratekeela ondoren udalak prestazioak erreklamatzeko administrazio prozedura hasi behar izanez gero. Beste arazo bat litzateke eskatzaileei aurretiaz jasotako laguntzak eskatzeko zailtasuna, denbora asko igaro ondoren jakinez gero diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria eman direla. Gainera, kontrajarri egiten da atzerapen hori Lanbideren erantzukizuna izatea, eta beraz, ez du beste administrazio batek landu behar.

Bukatzeko, udal batek azaldu zuen zaila izango litzatekeela beste administrazio baten (Lanbideren) atzerapenak dituzten espedienteak izapidetzea, eta hautatzeko irizpidea erabiliz gero, diskriminatzailtzat jo ahal izango litzatekeela.

Ekarpen gisa, udal batek adierazi zuen balitekeela aurreratutako dirua ez itzultzea askotariko arrazoiak direla-eta (zorrak, diru guztia batera jasoz gero dirua kudeatzeko zailtasun pertsonalak, eta abar), eta horren ondorioz, gizarteratze prozesuan laguntza eskaintzeko gaitasuna galdu ahal izango litzatekeela, eta beraz, proposatu zuten, laguntza aurreratuz gero, onuradunek agiri bat sinatzea, Lanbideri baimena emateko ebazpena positiboa izanez gero, zuzenean udalari aurreratutako dirua ordaintzeko. Baimen hori zuzenean udaleko gizarte zerbitzuek Lanbideri emango liekete. Proposamen hori egokitzeak jo dute hainbat udaletan. Dirudienez,

Gipuzkoako Foru Aldundian ohiko moduan gauzatzen zuten prozedura zen, diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatzeko eskumena zutenean.

Udal batek, praktika onaren adibide gisa adierazi zuen laguntza ekonomikoen lerro bat onetsi dutela, mikrokredituena, Fiare elkartearekin. Horretan, gizarte langileen txostenaz gain, azterketa ekonomikoa egiten dute. Laguntza lerro horretan interesik gabeko kreditu txikiak ematen dira, eta onuradunek, jasotako dirua zenbateko txikietan itzultzeko konpromisoa hartzen dute.

Laburbilduz, galdetutako udal gehienek laguntzak ematen dituzte Lanbiden atzerapenak daudenean diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria ebazterakoan, betiere arrazoiak eskatzaileari egotzi ezin direnean, eta benetako larrialdizko beharrak dituztenean.

4. Bukatzeko, galdetu genuen, ea, adingabeak dituzten familien kasuan, gizarte larrialdiko laguntzak eta udaleko prestazioak ukatzeko erabakia hartzean, kontuan hartzen den adingabeen interes gorena.

Udal gehienek erantzun dute **adingabeen interes gorena** kontuan hartzen dutela prestazio horiek ematerako orduan, izan ere, zaugarritasun gehien dutenak beraiek dira. Udal batek hala ere adierazi zuen, adingabeen interes gorena araubidean berariaz jasota ez baldin badago, adibidez urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 25. artikuluaurrekuspenean bezala, ez dela kontuan hartu behar, eta beraz, araubidea aldatzeko proposatu zuten.

III.- GOGOETAK

AURRETIAZKOA: Euskal gizarte babeseko sistemaren garrantzia

Aurretiaz, eta erakunde honek udalei egindako lankidetzaren eskarian jaso zen moduan, garrantzitsua da merezi duen balioa ematea euskal gizarte babeseko sistemari eta sistema horrek ekonomikoki egindako esfortzuari (2018an eta 2019an urteko 492,3 milioi euro inbertitu ziren diru-sarrerak bermatzeko sistemaren prestazioetarako) eta gizarte babesean egindako lanari, Eustaten azken datuen arabera, 2018an gizarte babeseko gastua ⁹ % 4,0 igo baitzen.

DEC adierazleak ¹⁰ Euskadiri (Nafarroarekin eta Gaztela eta Leonekin batera) kalifikazio onena eman dio gizarte zerbitzuen alorrean. Gainera, Pobreziaren eta

⁹ **Eustat**. Gizarte Babesaren kontua Erreferentziako aldia 2018. IN *Eustat, Euskal Estatistika Erakundea = Instituto Vasco de Estadística* [linean]. Azken eguneratzea 2020/01/29. Hemen eskuragarri: https://www.eustat.eus/estadisticas/idioma_c/tema_94/opt_0/ti_Cuenta_de_la_Proteccion_Social/temas.html

¹⁰ **Asociación Estatal de Directores y Gerentes en Servicios Sociales**. *Índice DEC 2018: índice de desarrollo de los Servicios Sociales* [linean]. Madrid: La Asociación, 2019. Hemen eskuragarri: <https://www.directoressociales.com/images/INDICEDEC/DEC2018real/REVISTA%20web.pdf>

Gizarte Bazterketaren Aurkako Europako AROPE Sarearen adierazlearen jarraipeneko urteko VIII. eta IX. txostenetan¹¹, EAE pobrezia tasa baxuena duten hiru erkidegoen artean dago, % 14,5ekoa delarik. Bukatzeko, 2018ko gizarte beharriaren inkestan, PGDI-POBREZIA MODULUAN¹², Euskadi, 2018an, Europako desberdintasun maila baxuenak dituzten eremuen artean zegoen. Gainera, txosten horretan diru-sarrerak bermatzeko errentaren, etxebizitzarako prestazio osagarriaren eta larrialdiko gizarte laguntzen sistemaren inpaktuaren analisia egiten da pobrezia gainditzeko beharrak betetzeari dagokionez, eta hauxe dago jasota: *“Euskadin ezarritako prestazioen ekarpenaren garrantziak oso altua izaten jarraitzen du pobrezia errealeko egoeretan dauden herritarren artean, estatuko administrazio orokorraren prestazioak, pentsioak barne, kontuan hartuz”*.

LEHENENGOA: Esparru juridikoa

Gomendio orokor honetan landutako arazoan aplikatu beharreko esparru juridikoa abenduaren 23ko 18/2008 Legea da, azaroaren 24ko 4/2011 Legearen bitartez aldatu zena. Bertan, zioen azalpenean adierazi den moduan, kontuan hartu zen gizarte beharren garapena eta errealitate berriak agertu izana, nagusiki hauek: pobrezia eta guraso bakarren errealitatea feminizatzea, pobrezia lurraldeen arabera batzea, emantzipatzeko zailtasunak edo soldata maila baxuei lotutako pobrezia.

Lege horretan gizarte bazterketa egoerak saihesteko tresnak arautzen dira, herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan baliatzeko orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dutenei laguntzeko, bai bazterkeria-arriskuari aurre egiten, bai bazterkeria pertsonala, soziala eta laborala arintzen, bai gizarteratzea errazten.

Bi prestazio kategoria daude ezarrita: zuzenbidezko prestazio ekonomikoak: Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria, eta diru-laguntza jaso dezaketen laguntza ekonomikoak: Gizarte larrialdiko laguntzak. Udalak dira gizarte larrialdiko laguntzak aintzatesteko, ukatzeko eta ordaintzeko eskumenak dituzten administrazioak, 18/2008 Legearen 88 d) artikulua arabera, azaroaren 24ko 4/2011 Legeari jarraiki. *“Eskariak jasotzea, izapidetzea eta gizarte larrialdiko laguntzak aintzatestea eta ukatzea, eta hala badagokio, laguntza horien ordainketak egitea”*.

¹¹ Red Europea de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social. *El estado de la pobreza: seguimiento del indicador de pobreza y exclusión social en España 2008-2017* [linean]. Madrid: La Red, 2018. Hemen eskuragarri: https://www.eapn.es/estadodepobreza/ARCHIVO/documentos/Informe_AROPE_2018.pdf

Red Europea de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social. *El estado de la pobreza: seguimiento del indicador de pobreza y exclusión social en España 2008-2018* [linean]. Madrid: La Red, 2019. Hemen eskuragarri: https://www.eapn.es/estadodepobreza/ARCHIVO/documentos/Informe_AROPE_2019_LA_SITUACION_EN_LAS_CCAA.pdf

¹² Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren erakunde estatistiko espezifikoak, opc. cit., 7. or.

Gizarte larrialdiko laguntzak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretua, aurreko legea garatuz, urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuaren bitartez aldatu zen. 9. artikuluan jasota dago, eskumenak dituen sailak urteko agindua argitaratzearen bitartez, urtean, orokorrean emango diren gehienezko zenbatekoak zehaztuko dituela udal bakoitzarentzako gastu espezifiko guztientzat, eta hori guztia urteko gehienezko zenbatekoen arabera, horretarako, beharrian adierazle batzuekin bat eginez, ekitaldi bakoitzerako esleitutako aurrekontu kontsignazio guztien arabera zenbatekoak zehaztuz.

Diru-laguntzak ematea udalei dagokie, baita Gizarteratze Aktiboaren Euskal Planari jarraiki, udaletako programak sortzea, onestea eta garatzea, gizarteratzeko erkidegoko esku-hartzeak eta jarduketak sustatzea, sortzea eta garatzea, etengabeko jarraipena egitea eta gizarte larrialdiko laguntza ekonomikoen titularrak eta onuradunak kontrolatzea ere (...); hori guztia, azaroaren 24ko 4/2011 Legearen idazketan emandako 18/2018 Legearen 88. artikuluari jarraiki.

Udaletako gizarte zerbitzuak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barne daude, eta sistema horren helburua hauxe da, abenduaren 5eko 12/2008 Legearen zioen azalpen atalaren arabera: *“Pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen eta autonomiaren alde egitea du xede; sustatzeko, aurreikusteko, babesteko eta laguntzeko eginkizunak betez gauzatu nahi du xede hori, funtsean pertsonen eta harremanen buruzkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez”*.

Udaletako gizarte zerbitzuen funtzioak mugatzea alor horretan azken urteetan egindako zeregin nagusienetakoa izan da, eta hainbat ikerketa akademiko egin izan dituzte horri buruz, baita eztabaidak ere, eta horien arabera, gizarte zerbitzuen funtzioa ez litzateke izan behar enplegu, etxebizitza edo diru-sarrera faltari aurre egitea, baizik eta pertsonen autonomia sustatzea egunerokotasuneko jarduerak egiteko, norberaren bizitza antolatzeke eta familia harremanak edo gizarteko harremanak hobetzeko. Doktrina entzutetsuena hauxe da:

“propone identificar la interacción como objeto de la intervención social y los servicios sociales” (Fantova, 2007, 200, Fantova, 2017, 13. orrialdean aipatua)

“la tarea propia y central de los servicios sociales en las políticas de inclusión e incorporación es el trabajo de apoyo social a la incorporación. Este trabajo social puede definirse como un proceso de acompañamiento del desarrollo personal en el contexto de la comunidad” (Manuel Aguilar et al, 2012, 21. or., Fantova, 2017, 14. orrialdean aipatua)

“identificar con qué fuerzas y recursos cuentan tanto la persona como su entorno, mapeando la disponibilidad de recursos en todos los `espacios` físicos y relacionales en los que transcurre la vida de la persona y teniendo en cuenta todos los tipos de recursos disponibles” (Blanco et al., 2015b, 33. or., Fantova, 2017, 17. orrialdean aipatua)¹³.

¹³ **Fantova**, F. Servicios sociales e inclusión social: análisis y perspectivas en el País Vasco. *Zerbitzuan* [linean], 64, zk., 2017, abendua, 9-31 or. Hemen eskuragarri: http://www.zerbitzuan.net/documentos/zerbitzuan/Servicios_sociales_inclusion_social.pdf

Horrenbestez, hausnarketa sakona egin behar da gizarte zerbitzuen gaur egungo funtzioei buruz, eta hausnarketa horrek ez du emaitzarik emango beste sistema batzuen sinergiarik eta lankidetzarik gabe (diru-sarrerak, etxebizitza, osasuna eta abar bermatzea), eta bestalde, araubidea ere egokitu egin beharko da.

Arartekoak badaki eztabaida hori dagoela, eta laburbilduz, eztabaidatzen dena da *ea udaletako gizarte zerbitzuei dagokien prestazio ekonomikoak ematea, eta ea horrela jardutea eraginkorra den*. Gomendio orokor honetan, hala ere, kontuan hartu da gaur egun oinarritzko gizarte zerbitzuek egunerokotasunean gauzatzen duten lana indarrean dagoen araubide esparruarekin bat eginez, eta hori ez da oztopoa eskumenak dituzten eragile publikoek, eztabaida horren emaitza gisa, beharrezko aldaketak sustatzeko eta eredu aldaketa sortzeko, baina, berretsi behar da udaletako gizarte zerbitzuen eguneroko lanean askotariko alderdiak jorratzen dituztela.

Udaletako gizarte zerbitzuek koronabirus Sars-Covid 19aren ondoriozko osasun krisitik eratorritako neurriak kudeatzean erakutsi duten hurbiltasunak eta profesionaltasunak argi uzten dute garrantzitsua dela gure gizartean zerbitzu publiko hori izatea, eta ezinbestekoa da aurretik aipatutako hausnarketa egitea eta gizarte zerbitzuak indartzea, gizarte zerbitzuok ezinbestekoak izan baitira gizarte kohesioan eta alarma egoera deklaratzearen ondoriozko inpaktu ekonomiko handiena jasan duten pertsona zaugarrienei arreta ematean.

Aplikatu beharreko araubide esparruari buruzko atala bukatzeko, ezinbestekoa da adingabeen interes gorena aipatzea. Interes hori agintaritzza publiko guztiek kontuan hartu behar dute Nazio Batuek 1989ko azaroaren 20an onetsitako umeen eskubideen hitzarmena onetsi ondoren, Espainiak berretsi zuena 1990eko azaroan. Eta horrenbestez, 1991ko urtarrilaren 5ean indarrean jarri zenetik aurrera, gure ordenamendu juridikoaren barne dago.

Horrez gain, hitzarmenaren 3. artikulua, Umeen Eskubideen Batzordearen 14. gogoeta orokorrari jarriki, berariaz gehitu zen Adingabeak juridikoki babesteko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan, Kode Zibila eta Prozedura Zibilari buruzko Legea aldatzen duenean. Hala, 2.1. artikuluan haxe dago zehaztuta:

“1. Todo menor tiene derecho a que su interés superior sea valorado y considerado como primordial en todas las acciones y decisiones que le conciernan, tanto en el ámbito público como privado. En la aplicación de la presente ley y demás normas que le afecten, así como en las medidas concernientes a los menores que adopten las instituciones, públicas o privadas, los Tribunales, o los órganos legislativos primará el interés superior de los mismos sobre cualquier otro interés legítimo que pudiera concurrir.

Las limitaciones a la capacidad de obrar de los menores se interpretarán de forma restrictiva y, en todo caso, siempre en el interés superior del menor.”

Gogoeta hori eta diru-sarrerak bermatzeko politika publikoetan aplikatu izana xehetasun gehiagoz garatu da hemen [Arartekoaren 2/20 gomendio orokorra, 15, apirilak 8](#)¹⁴: *Politika publikoetan adingabearen interes gorena kontuan hartzeko betebeharra, bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman.*

Zalantzarik gabe, hobekuntza nabaria da hainbat araubideetan agertzea (zehazki, Umeak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko uztailaren 22ko 8/2015 Legearen 1.21. artikuluan aurreikusita dago lege aurreproiektuekin eta araubideen proiektuekin batera egon behar diren inpaktu arautzailea aztertzeko memorieta jaso behar dela araubideak umeengan eta nerabeengan duen eragina, eta aurreikuspen hori urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan gehituta dago, 22 quinquies artikuluan), baina horrek, ez du eragozten umeen interes gorena administrazio publikoek kontuan hartu beharreko legezko agindua izatea, albo batera utzita araubidean agertzea, eta gainera, adingabeei eragiten dieten administrazio erabakien zioetan agertu beharko litzateke, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren idazketa berriaren 2. artikuluan aurreikusitako terminoei jarraiki. Hala, Nazio Batuen Umeen Eskubideen Batzordearen aldizkako bosgarren eta seigarren txosten konbinatuei buruzko azken xedapenetan, honako gomendioak ematen zaizkio Espainiari:

“a) Intensifique sus esfuerzos para asegurar que el derecho del niño a que su interés superior sea una consideración primordial esté incorporado de manera apropiada y sea interpretado y aplicado de manera consistente en todas las actuaciones y decisiones legislativas, administrativas y judiciales y en todas las políticas, los programas y los proyectos pertinentes que tengan un efecto en los niños;

b) Formule procedimientos y criterios uniformes para brindar a todas las personas competentes en posiciones de autoridad la orientación necesaria para determinar el interés superior del niño en todos los ámbitos y para otorgar la debida consideración primordial a ese principio;

c) Imparta a los profesionales que trabajan con los niños y para ellos formación sobre la manera de determinar el interés superior del niño.”

BIGARRENA: Gizarte Larrialdiko Laguntzen garrantzia

Gizarte larrialdiko laguntzak aldizkakoak ez diren beharrei erantzuteko dira, diru-laguntza izaera dute eta gastu espezifikokoak, ohikoak edo apartekoak ordaindu ahal izateko nahiko baliabiderik ez duten pertsonen zuzenduta daude, behar horiei erantzutea beharrezkoa delarik gizarte bazterketa prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko (urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 2. artikulua). Laguntza horiek emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan xede

¹⁴ **Euskadi. Ararteko.** Arartekoaren 2/2015 Gomendio orokorra, apirilaren 8koa. Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman [linean]. Hemen eskuragarri: http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3662_1.pdf

horretarako nahikoa kreditu egonez gero. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria, aldiz, aldizkako laguntza ekonomikoak dira, bi urtean zehar betekizunak betetzen dituzten pertsoneri ematen zaizkienak, eta berriro egin daitezke baldintzak mantenduz gero.

Gomendio orokor honen helburu nagusia da, nagusiki legearen ikuspegitik aztertzea ea egokia den udalek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko baldintzak betetzen dituzten pertsoneri gizarte larrialdiko laguntzak ematea. Hala ere, aurrerago azalduko diren arrazoiak direla-eta, pertsona horiek batzuetan ez dituzte laguntzak jasotzen eta ez dute diru-sarrerarik izaten oinarrizko beharrak betetzeko, eta horrek guztiak, areagotu egiten du sufritzen duten gizarte bazterketa egoera.

Arazo hau aztertzean, garrantzitsua da gizarte bazterketa modu honetan ulertzea: *“proceso de alejamiento progresivo de una situación de integración social en el que pueden distinguirse diversos estadios en función de la intensidad: desde la precariedad o vulnerabilidad hasta las situaciones de exclusión más graves. Situaciones en las que se produce un proceso de acumulación de barreras o riesgos en distintos ámbitos (laboral, formativo, sociosanitario, económico, relacional y habitacional) por un lado y de limitación de oportunidades de acceso a los mecanismos de protección, por el otro”* (Subirats, Goma, Brugué, 2005b eta Subirats et al., 2004, Laparra eta beste batzuk, 2017, 29. orrialdean aipatua)¹⁵.

Arartekoaren ustez, nahiz eta diru-sarrerak bermatzeko araubide eta prestazio esparrua gizarteratzeari lotutako zenbait betekizun eta betebeharrak betetzearekin baldintzatuta egon, adingabeak dauden edo ez albo batera utzita, beharrezkoa da hausnartzea inolako diru-sarrerarik ez izateak zenbait familietan dituen ondorioei buruz, familia horietan diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria etenda edo iraungita egonik, ezinezkoa baita askotan oinarrizko beharrak ordaindu ahal izatea, eta horren guztiaren ondorioz, beraien egoerak okerrera egiten du eta gizarte bazterketa prozesuak eta umeen pobrezia egoerak areagotu egiten dira.

Ezin dugu ahaztu, zuzenbidezko prestazioak aldi batean etetean edo iraungitzean, gizarte bazterketa prozesu larriak areagotu daitezkeela. Hori saihesteko, beharra duten pertsonak, historikoki egin izan duten moduan, udaletako gizarte zerbitzuetara joaten dira laguntza eske, eta laguntza hori azkarra eta irizpide bateratuak dituen izan beharko litzateke.

Horregatik, Europako Batzordearen 2013ko otsailaren 20ko gomendioa garrantzitsua da: *“Haurrengan inbertitzea: desabantailen zikloa haustea”*; erakunde honek gomendio hori aipatu zuen 2/2015 Gomendio Orokorrean. Europako Batzordeak, belaunaldien arteko desabantailak transmititzea saihesteko, honako gomendioak ematen ditu: *“Familien diru-laguntzak babestea prestazio egoki, koherente eta eraginkorrekin, besteak beste, pizgarri fiskalekin, familia*

¹⁵ Laparra, M. et al. Una propuesta de consenso sobre el concepto de exclusión: implicaciones metodológicas. *Revista Española de Tercer Sector* [linean], 5. zk., urtarrila-apirila 2007. Hemen eskuragarri: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2376685>

prestazioekin eta kargura dauden seme-alaben arabera, etxebizitza-laguntzekin eta gutxieneko diru-sarrera sistemekin". Horrez gain, hauxe gomendatzen du: *"Zuhurrak izatea familia prestazioak gurasoen jarreraren edo haurrak eskola joatearen menpe daudenean, eta neurri horiek izan dezaketen eragina ebaluatzea"*. Ondorioz, familia-prestazioak gurasoen jarreraren edo haurrek eskolan duten asistentziaren mende daudenean, zuhurrak izatearen alde egin du Europar Batzordeak, neurrien balizko eragin negatiboa kasu bakoitzean ebaluatuz.

Une honetan, kontsultatutako udal gehienek Europako Batzordearen 2013ko otsailaren 20ko ebazpena betetzen dute, baita adingabeen interes gorenari lotutako betebeharrak ere, horiek, derrigorrez bete behar direlarik ordenamendu juridikoaren barne egoteko. Izan ere, bakarrik udal batek bakarrik zalantzan jarri zuen adingabeen interes gorenari kontuan hartu behar izatea, ez baitago araubide espezifikoan berariaz aurreikusita; hala ere, planteamendu horrek, aurretik azaldu dugun moduan, ez du gaur egungo araubide esparruaren babesik.

HIRUGARRENA: Jasotako erantzunen balorazioa

Arartekoak galdetutako udalen erantzunekin egiaztatu da, orokorrean, udalek badakitela zein den beraien zeregina gizarte bazterketa egoera larriak saihesteko, baina uste dute ez dutela nahiko araubide tresnarik eta aurrekontu kontsignaziorik, eta beraz, beste administrazio publiko batzuk jardun beharko luketela adierazi dute, esku-hartzea eskatzen duten pertsonen beharrei erantzun eraginkorrak emate aldera.

Udaletako erantzunetatik ondorioztatu da nagusiki, udaletako gizarte zerbitzuek beharizanen benetako egoera aztertzen dutela. Arartekoa ados dago horrekin. Urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 21. artikulua idazketa berrian (urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuan) hauxe dago jasota: *"Gizarte-larrialdietarako laguntzak eman aurretik, erreferentziazko oinarritzko gizarte-zerbitzuak kasu guztietan egiaztatu beharko du benetako premia-egoera dagoela eta laguntza horiek egokiak direla egoera horri aurre egiteko; era berean, helburu horretarako kreditua ezarrita dagoela ere egiaztatu beharko da. Laguntzak ematea premia-egoerari aurre egiteko desegokia dela baloratzeko, kontuan hartuko da, bereziki, inguruabarrak edo aurrekariak egotea, adierazten dutenak arriskua dagoela laguntzon erabilera okerra edo xedearekin bat ez datorrena egiteko."*

Urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuaren bidez egindako aldaketarekin, balio gehiago ematen zaio oinarritzko gizarte zerbitzuen txostenari, eta zerbitzu horiei ematen zaie **laguntza horien beharizanen eta egokitasunaren benetako egoera eta larrialdikoa egiaztatzeko** zeregina. Era berean, artikulua horren arabera, laguntzak ematea premia-egoerari aurre egiteko desegokia dela baloratzeko, irizpide hau hartuko da kontuan: inguruabarrak edo aurrekariak egotea, adierazten dutenak arriskua dagoela laguntzon erabilera okerra edo xedearekin bat ez datorrena egiteko (xede horretarako kontsignatutako kreditua egoteaz gainera).

Laguntzen beharraren aurkako balorazioa emateko irizpide gisa ez da aipatzen **diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidearen etetea edo iraungitzea aldi berean gertatzea edo diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaria aurkeztu izana eta erantzunaren zain egotea**; hau da, diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra izateko baldintzak betetzea. Gainera, kontuan hartu behar da diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra izatea bateragarria dela gizarte larrialdiko laguntzak jasotzearekin (zenbait kontzeptu salbuetsiz¹⁶).

Horri dagokionez, araubidean aurreikusita dago ez dela bateragarria gizarte larrialdiko laguntzak alokairua ordaintzeko jasotzea diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren jasotzailea izanez gero. Hala da, urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 4. artikuluko 3. paragrafoan, urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuan emandako idazketan, hauxe dago jasota: *“3.– Alokairuko gastuak ordaintzeko aurreikusita dauden gizarte-larrialdiko laguntzak ezin dira bateratu ez diru-sarrerak bermatzeko errentaren modalitate bakar batekin, ez eta Etxebizitzaren Legean jasota dagoen eskubide subjektiboa asetzeko etxebizitzarako diru-laguntzarekin ere; ekainaren 18ko 3/2015 Lege horretan, etxebizitza legez okupatzeko eskubide subjektiboa baitago jasota.”*

Era berean, 2/2010 Dekretuaren 25.2. artikulua honako hau ezartzen du: *“Prestazioa eteten den kasuetan ezin izango da gizarte-larrialdietarako laguntzako espedienterik bideratu etendako Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren titularrak eskatuta, edo haren bizikidetzaren beste edozein kidek eskatuta, etxebizitzarekin loturiko ezein gasturengatik (Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 44.2.a) artikuluan bilduta daude gastu horiek), salbu eta etete hori lan-egoeraren behin-behineko hobekuntza baten ondoriozko bizikidetzaren diru-sarreraren behin-behineko igoerari zor zaion kasuetan.”*

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2019ko abenduaren 17ko Aginduaren bitartez, 2020. urtean gizarte larrialdietarako laguntzetako gastu espezifiko bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diru-kopuruak eta laguntza horietarako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak finkatzen dira; eta, horretaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko, udal eta mankomunitate bakoitzarentzat 2020. urterako aurrekontu-mugak finkatzen dira. Agindu horretan

¹⁶ AGINDUA, 2019ko abenduaren 17koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena. 2.2. art. *“Dena dela, artikuluko 1. paragrafoa a), b), c), d), e) eta f) idatzi-zatietan aipatzen diren kontzeptuei dagozkien GLLak ez dira bateragarriak Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO, aurrerantzean) jasotzearekin, Etxebizitzarako Laguntza Ekonomikoarekin (ELE, aurrerantzean). Azken hau ekainaren 18ko 3/2015 Legeak, Etxebizitzari buruzkoak, aurreikusita duen etxebizitza bat izateko eskubide subjektiboa asetzerazuzendua da, eta ezta ere Gaztelagun izeneko programaren laguntza, 2018ko abenduaren 18ko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuaren Aginduak ezartzen duena: etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautzen dituena eta deialdia egiten duena. Lehenengo paragrafoa a) idatzi-zatian adierazitako gastuetarako jasotzen den GLLa, halaber, ez da bateragarria Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (aurrerantzean, DBE) jasotzearekin, edozein modalitateetan izanik ere.”*

zehazten da zer kontzeptutan ez diren bateragarriak EPO eta GLL laguntzak, eta urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 4.3 artikuluan (urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuak emandako idazketan) bildu ez ziren zenbait kontzeptu gehitu ditu, han alokairu gastuak bakarrik hartzen baitziren kontuan. Agindu honek, alokairu gastuetara ez ezik, beste kontzeptu batzuetara ere zabaldu du bateraezintasuna, honako gastu hauetara hain zuzen:

- Gizarte larrialdiko egoera baino lehenagoko etxebizitza edo bizitokia erosteko kredituen interesen eta amortizazioaren gastuengatik, 250 euro gehienez hileroko, ezingo delarik da kredituaren hileroko interesen edo amortizazioaren zenbatekoaren % 70 gainditu.
- Energia-gastuengatik, argindar-, gas- edo etxerako beste erregai-horniketa batzuek eraginak, gehienez 900 euro urtero. Bi BU baldin badira, urtero 450 euro bakoitzari.
- «Linea zuriko» etxe-tresna elektrikoaren eta altzarien gastuak direla-eta, gehienez 1.850 euro urtero. Bi BU baldin badira, urtero 925 euro bakoitzari.
- Etxebizitza konpontzeko, egokitzeko eta/edo oinarrizko instalazioak egiteko gastuak direla-eta, gehienez 1.850 euro. Bi BU baldin badira, bakoitzari gehienez 925 euro urtean.
- Ohiko etxebizitza edo bizilekua izan eta mantentzeko beharrezkoak diren beste gastu batzuek, 900 euro gehienez urtean. Bi BU baldin badira, urtero 450 euro bakoitzari. Kontzeptu honetan sartzen dira uraren, zaborraren eta estolderiaren gastuak eta hiri- zein landa-eremuko ondasun higiezinaren gaineko zergari dagozkionak, jabeekideen erkidegoaren kuotatik eratorritako gastuak, bai eta etxebizitzaren segurtasunarekin lotutakoak ere (Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2019ko abenduaren 17ko Aginduaren 4. artikulua, 1. paragrafoa, a), b), c), d), e) eta f) letrak)¹⁷

Agindu horretan jasota dago gainera, gizarte larrialdiko laguntzak jasotzea ez dela bateragarria diru-sarrerak bermatzeko errentarekin alokairuko gastuei dagokienez, 2. artikuluko 1. paragrafoaren a) hizkiaren arabera.

Bukatzeko, 4/2011 Dekretuaren 12. artikuluan araututa daude laguntzak emateko eta zenbatekoak kalkulatzeko gehienezko kopuruak, eta bertan ezarrita dago GLL eskatu zuten urtean DSBE jaso zuten bizikidetzaren unitateetan, konputagarriak diren bizikidetzaren unitateko diru-sarreraren baturaren gehi DBSE kontzeptuaren edozein modalitateetan, EPOn eta GLLn bizikidetzaren unitate berari eman daitezkeen urteko laguntza ekonomikoak, inolaz ere ezingo dutela gainditu urte batean titularraren ezaugarri berdinak dituen bizikidetzaren unitate bati eman beharreko DSBEren modalitatearen gehienezko kopuruaren % 200.

¹⁷ Kontzeptu horiek ez dira bateragarriak etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzearekin, etxebizitzarako prestazio ekonomikoarekin (EPE, prestazio hori, ekainaren 18ko 3/2015 Legearen aurreikusitakoaren arabera, etxebizitza legez okupatzearen eskubide subjektiboa betetzeko da) eta Gaztelagun programaren laguntzekin, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuaren, etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautzen dituen eta deialdia egiten duen 2018ko abenduaren 18ko aginduan aurreikusita daudenekin hain zuzen ere.

Azken finean, **gizarte larrialdiko laguntzak bateragarriak dira diru-sarrerak bermatzeko errentaren titulartasunarekin, kontuan hartuz aurretik adierazitako gehienezko kopurua**, salbuetsiz alokairuko gastuen kontzeptua eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasoz gero, bestelako gastu zehatzak. Beraz, gizarte larrialdiko laguntzak ez dira kontzeptu guztietan emango, ez diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular izandakoan, ez etxebizitzarako prestazio osagarria etenda dagoenean (araubidean ez dago aurreikuspen batik etxebizitzarako prestazio osagarria azkentzeari buruz, eta hori, ez da ahaztu behar, diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzearekin lotuta dagoela urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 29.b. artikulua arabera). Hala, kontsultatutako udal batek esan zuen Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria azkentzea erabakitzen duenean, gizarte larrialdiko laguntzak ematen dituztela gastu guztientzat, bateragarriak izan edo ez.

Hala ere, urteko aginduetan ikusi dugun moduan, alokairuko gastuez gain, etxebizitzari lotutako beste gastu batzuk aipatzen dituzte gizarte larrialdiko laguntza jasotzeko bateragarriak ez diren kontzeptu gisa, besteak beste etxebizitzarako prestazio osagarriaren edo etxebizitzarako prestazio ekonomikoaren titularra izatea edo etxebizitzarako prestazio osagarria etenda edukitzea.

Gaur egungo idazketan, nahiz eta askotariko araubide testuetara jo behar izan, zenbait kontzeptu ezartzen dira diru-sarrerak bermatzeko errentaren, etxebizitzarako prestazio osagarriaren eta gizarte larrialdiko laguntzen titularrentzat, eta jasotako prestazioen gehienezko zenbatekoa ere zehazten da. Azpimarratu behar da araubidean zenbait kontzeptu zehazten direla, bateragarriak direnak edo ez direnak, **jasotzearen bateraezintasun kontzeptu guztiak antolatu gabe**. Izan ere, udalek gizarte larrialdirako laguntzak ematen dizkiete diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrei (baita zenbait kontzeptugatik ere etxebizitzarako prestazio osagarriaren kontzeptu zehatz batzuk direnean), eta beraz, **are arrazoizkoagoa da gizarte larrialdiko laguntzak ematea diru-sarrerak bermatzeko errenta etenda dagoenean edo diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungita daudenean edo etete edo iraungitze ebazpen horren aurka jarritako berraztertze aukerazko errekursoaren ebazpenaren zain daudenean**. Horrek esan nahi du, kaltetuak, zaurgarritasun egoera larriagoan daudela.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 4. artikulua, herri-administrazioek jardura batean egin beharreko esku-hartzeen artean zehazten du administrazio publikoek proportzionaltasun printzipioa aplikatu behar dutela eta murrizketa gutxien ezartzen dituen neurria aukeratu behar dutela.

“1. Administrazio publikoek, haien eskumenen barruan dihardutela, eskubide indibidualak edo kolektiboak gauzatzea murrizten duten neurriak ezartzen badituzte edo jardura bat egiteko betekizunak eskatzen badituzte, proportzionaltasun-printzipioa aplikatu beharko dute eta murrizketa txikiena eragiten duen neurria aukeratu beharko dute, interes publikoa babesteko beharrezkoa dela arrazoitu eta lortu nahi diren helburuetarako egokia dela justifikatu, betiere diskriminazioa eragiten duten tratu-desberdintasunak baztertuz. Halaber, lortutako eragin eta emaitzak ebaluatu beharko dituzte aldizka.”

Arartekoaren iritziz, egoera horietan gizarte larrialdiko laguntzak ukatzea neurri murriztailea da, eta ez du araubide babesik. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte larrialdiko laguntzen titularra izan nahi bada edo diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eta gizarte larrialdiko laguntzen titularra izan nahi bada kontzeptu batzuei dagokienez, **arrazoi gehiagorekin izango da bateragarria horiek jasotzea diru-sarrerak bermatzeko errentaren jasotzaileak ez direnean, hori etenda edo iraungita dagoelako edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren jasotzaileak ez direnean hori iraungita dagoelako, edo egitate irmoak ez direnean berraztertzeke aukerazko errekurtsioaren ebazpenaren zain daudelako, edo bukatzeke, emakidan atzerapena gertatu delako, albo batera utzita diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidearen titularra izateko baldintzak betetzea.** Legegileak ez du zehaztu prestazio horiek jasotzea guztiz bateraezina denik, ezta Lanbidek dekretatutako eteteak edo iraungitzeak gizarte larrialdiko laguntzen emakidari eragin behar dionik.

Bestalde, udaletako gainerako prestazioen araubide arautzailea aztertuta, egiaztatu dugu araubide hori gizarte larrialdiko laguntzak arautzen dituenaren antzekoa dela, nagusiki ez delako aldizkakoa, helburu izaera duelako eta diru-laguntza, laguntza eta osagarri izaera duelako. Prestazio horiek beste baliabide hauekin batera ematen dira: esku-hartze indibidualekoak, familiakoak, taldekoak eta komunitatekoak. Udalek adierazi dute prestazio horiek emateko oinarri arautzaileak aplikatzen dituztela, eta beraz, irizpide propioak dituztela, eta horrek, zaugarritasun egoerak irizpide propioekin jorratzea ahalbidetzen diela. **Arazo hori horrenbestez, larriagoa litzateke bestelako udal prestaziorik ez duten udalentsat, hau da, bakarrik gizarte larrialdiko laguntzak dituztenentzat.**

LAUGARRENA: Arartekoak proposatutako irizpideak

Gizarte larrialdiko laguntzak izapidetzean eta ematean urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuan aurreikusitako araubidea aplikatu behar da, urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuaren bidez aldatu zena, eta oso garrantzitsua da 18. artikuluko aurreikuspen hau¹⁸: *“Udalak egiaztatuko du eskatzaileak eta haren bizikidetzaren unitateko kideek jaso ditzaketenean eduki ekonomikoko gizarte eskubideak eta prestazioak osorik baliatu dituztela”* eta 2. atalean araututa dago *“hori egiaztatzeke prozedura”*.

¹⁸ “18. artikulua.– Eduki ekonomikoko eskubideak eta prestazioak egiaztatzea.

1.– Udalak egiaztatuko du eskatzaileak eta haren bizikidetzaren unitateko kideek jaso ditzaketenean eduki ekonomikoko gizarte-eskubideak eta -prestazioak osorik baliatu dituztela.

Horretarako, honako zirkunstantzia hauetan ulertuko da eskubideak oso-osorik baliatu direla:

a) Edozein jurisdikzio-ordenari lotutako eskubide eta prestazioen kasuan, dagokion epaia edo beste ebazpen judiziala eman ondoren edo, halakorik ez badago, eskubidea edo prestazioa erreklamatzeko prozedura formaz hasi ondoren eta horretan atzera egin ez bada.

Ebazpen judizialak jadanik onetsi dituen baina jaso ez diren eskubideen edo prestazioen kasuan, horiek baliatu direla ulertuko da horiek eman behar dituen pertsonari dagokion ez-betetzeagatik ebazpen judizialaren betearazpen-gorabeherari hasiera eman zaiola egiaztatzen denean.

b) Gainerako kasuetan, dagokion eskubidea edo prestazioa erreklamatzeko prozedura formaz hasita dagoenean, ez bada horretan atzera egiten edo ez bazaio horri uko egiten.

2.– Eskatzaileak edo haren bizikidetzaren unitateko kideek egikaritu ez dituzten eduki ekonomikoko eskubideak balia baditzakete, udalak eskatzaileari eskatuko dio eskubide horiek dagokion ebazpena eman baino lehen egikari ditzala, indarrean dagoen legerian xedaturikoaren arabera.”

Logikoa da hori; izan ere, helburua da egiaztatzea herritarrek beste prestazio ekonomiko batzuk jasotzeko eskubidea ote duten, eta, hala badagokio, interesdunei aholkatzea horiek eska ditzaten, gizarte behar larrietarako laguntzen izaera subsidiarioa aintzat hartuta.

Gainera, urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuan berariazko araubide mugatzaile bat dago titularrak aurkeztu beharreko dokumentuen betebeharrei edo itzulketa prozedurari dagokionez; hau da, **araubide autonomoa eta propioa** du diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazio ekonomikoen araubide aurreikuspenei dagokienez, bestelako dekretu arautzaileak dituztenak, eta beraz, alderdi horiei buruzko araubide igortzea dago.

Artatutako familiak edo pertsonak diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren onuradun izateko betekizunak betetzen baldin baditu, horiek eska ditzala gomendatu behar zaio. Baina laguntza horiek jasotzen ez badituzte eskubidea etenda edo iraungita dutelako edo errekurtsuaren ebazpenaren zain daudelako, eta agerian baldin badago ez dituztela laguntza horiek denbora zehatz batean jasoko edo kudeaketaren erakunde eskumendunak atzerapenak baldin baditu, Arartekoaren iritziz, **beharrizanen egoera erreala eta larrialdikoa gertatzen da, eta udaletako gizarte zerbitzuei dagokie laguntza horien egokitasuna baloratzea egoera hori hobetzeko, araubidean jasota dagoen moduan:** "Inguruabarrak edo aurrekariak egotea, adierazten dutenak arriskua dagoela laguntzon erabilera okerra edo xedearekin bat ez datorrena egiteko".

Erakunde honen ustez, gizarte larrialdiko laguntzak ukatzeko arrazoia araubidean aurreikusita egon behar da (urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 5-7., 12. eta 21. artikulua, urtarrilaren 17ko 16/2017 idazketan), eta arrazoi horretan, ezingo litzateke adierazi diru-sarrerak bermatzeko errenta etenda edo iraungita egotea edo etxebizitzarako prestazio osagarria iraungita egotea edo eskariaren ebazpena ebazteke egotea. **Izan ere, inguruabar horietan sortzen da laguntza behar gehien, diru-sarrera ekonomikorik ez izatean prekarietatea eta zaugarritasuna areagotu daitezkeelako eta gizarte bazterketa larriko eta umeen pobreziako arriskuak sortu daitezkeelako.**

Horrek ez du esan nahi udalek, beharrizanaren egoera larria eta erreala baloratzeko orduan, beste irizpide batzuen artean, pertsona horren jokaera edo Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidea eteteko edo iraungitzeko erabilitako arrazoiak kontuan hartu behar ez dituenik. Hala ere, azterketa hori egiterako orduan, kontuan hartu beharko litzateke baita ere ebazpen horiek errekurtsuak izan ditzaketela eta ebazteke egon daitezkeela, edo eskarien izapidetzean edo administrazio errekurtsuetan edo berriro ekitean atzerapenak egon daitezkeela.

Azken finean, Arartekoak uste du ez dagoela **arrazoi juridiko erabakigarri** gizarte larrialdiko laguntzak ematea debekatzen duenik diru-sarrerak bermatzeko errenta etenda edo iraungita edo etxebizitzarako prestazio osagarria iraungita dagoenean edo prestazio ekonomiko horien eskarien ebazpenak atzeratzen direnean.

BOSGARRENA: Diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren ebazpenetan atzerapenak gertatzea

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren ebazpenen atzerapenei dagokienez, udalek bidalitako txostenetan askotariko iritziak daude, azpimarratu behar direnak.

Zenbait udaletan, gizarte larrialdirako laguntzak ematen dituzte, eta ondoren, onuradunari itzulketa eskatzea baloratzen dute, horiek diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren aintzatespena jasotzean. Beste udal batzuk, hasieratik aurreikusten dute laguntza itzuli beharra, diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren aintzatespena jasoz gero. Beste batzuk, bakarrik prestazio horiekin bateragarriak diren kontzeptuetarako ematen dituzte gizarte larrialdiko laguntzak .

Bukatzeko, zenbait udalek ez dute gizarte larrialdiko laguntzarik ematen, eta horren arrazoiak dira, alde batetik, laguntza itzultzeko zailtasunak daudela, eta beste alde batetik, ezin dituztela laguntzak eskaini kasu guztietan edo ezin dituztela zenbait egoera diskriminatu, eta bukatzeko, udal administrazioek maileguak emateko ezintasuna dutela adierazi zuten.

Zailtasun horiekin, udal batek proposatu zuen Lanbidek tokiko erakundeari udaleko gizarte zerbitzuek "aurreratutako" zenbatekoa ordaintzea, larrialdi egoerak direla-eta gizarte larrialdiko laguntzak ematea baloratzen dutenean. Lanbidek hobetu egin ditu izapidetze epeak, baina baliteke zenbait egoeretan udaletako gizarte zerbitzuek berehalako erantzuna eman behar izatea, eta aurreko proposamenaren arabera jorratzeko aukera egon daiteke.

IV.- ONDORIOAK

1. Euskal administrazio publikoek esfortzu handia egiten dute eta aurrekontu handia erabiltzen dute, ekonomikoa eta giza baliabideei dagokiena baita ere, askotariko gizarte bazterketa egoerak saihesteko eta arintzeko.
2. Udaletako gizarte zerbitzuek gizarte bazterketa egoeran dauden herritarrei arreta ematen diete horien gizarteratzea errazteko, eta gizarte zerbitzuetako ezaugarriekin bat datozen prestazio teknikoak ematen dizkiete, prestazio ekonomikoak maila txikiagoan ematen dituztelarik. Horretarako, gizarte lanean prestatua den langileria dute, eta horiek gauzatzen dute gizarte laguntza eta diagnostiko partekatua eta arreta pertsonalizatuko plana ere gauzatzen dute, gizarteratzeko jarduketak jasoz.
3. Udaleko gizarte zerbitzuak ezin dira ordezkatu, eta herritarrek gorai patzen duten funtzioa dute, gizarte larrialdiko egoeran dauden familiek gizarte bazterketa eta etxebizitza prozesu larriak sufritzea saihesteko lan egiten dutelarik, egoera hori atzerapen batengatik edo diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren etete edo iraungitze batengatik gertatu denean, bereziki familian adingabeak baldin badaude.

Horretarako, askotan, prestazio ekonomikoak eman behar dira, modu puntualean eta apartekoan.

4. Udaletan jasotzen diren gizarte bazterketa egoeran egoteko arriskua duten pertsonen laguntza eskariek, normalean, EAEko aurrekontu orokorretatik eratorritako gizarte larrialdi laguntzak ordaintzeko zuzkidura ekonomikoa gainditzen dute. Zenbait udalek funts propioekin osatzen dituzte Eusko Jaurlaritzak kontsignatutako zuzkidura eta laguntzak banatzeko araubide espezifikoak dute.
5. Udalei egindako lankidetzaren ondoriozko erantzunak askotarikoak izan dira, eta horrek agerian uzten du askotariko ikuspegiak daudela gizarte bazterketa egoera arriskuan dauden pertsonen arreta ematerako orduan.
6. Arartekoaren ustez, gaur egungo sistemaren eraketak eta araubidea aplikatzeak zilegi egiten dute udaletako gizarte zerbitzuek gizarte larrialdiko laguntzak ematea beharizanen egoera erreala eta larrialdikoa baloratuz gero, albo batera utzita diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izatea (bateragarriak diren kontzeptuei dagokienez) edo diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra izatea eta prestazio horiek jasotzeko eskubidea etenda edo iraungita izatea -salbuetsiz etxebizitzarako prestazio osagarriak etetea bateragarriak ez diren kontzeptuei dagoenez-, baita eskaria ebaztean atzerapenak egotea ere, betiere, urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuaren bidez aldatutako gizarte larrialdi laguntzak arautzeko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuan jasotako betekizunak betez gero, eta hori guztia, gizarte larrialdiko laguntzak jasotzeko eta bateragarriak diren kontzeptuei eta aurreikusitako zenbatekoei dagokienez, eta gainera, garapeneko urteko aginduetan zehaztutakoak betez.
7. Gizarte larrialdiko laguntzen araubidea askotarikoa eta konplexua da, izan ere, kontzeptu zehatzak eta askotarikoak ezartzen ditu eta DSBE/EPO/GLL-ren titularrentzako bateragarriak diren eta ez diren zenbatekoak ezartzen ditu, urtero araubide espezifiko argitaratzea eskatzen du, eta askotariko erakundeetako eta sailtako mailek esku-hartu behar dute, erakundeen artean eta barnean, urteko baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak altuak direlarik.
8. Udaleko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren arteko koordinazioa eta lankidetzaren derrigorrezkoa da, legezko aginduen arabera, eta horrez gain, bermatu egiten da administrazio jarduketaren guztiak eraginkorrak direla.
9. Etxebizitza ezinbesteko elementua da gizarteratzea bermatzeko eta gizarte bazterketa egoera larriak saihesteko. Babes publikoko etxebizitza kopurua ez da nahikoa, eta merkatu pribatuko (merkatu hori da etxebizitzaren hornitzaile nagusia) prezioak altuak dira eta zaila da merkatu pribatuan etxebizitza eskuratzea, eta horrek guztiak udaletako gizarte zerbitzuen esku-hartzea baldintzatzen du.

10. Gizarte larrialdiko laguntzek eta udalaren beste prestazio ekonomiko batzuek berezko erregulazioa eta helburuak dituzte, eta horiek ez datoz bat DSBEren eta EPOren erregulazio eta helburuekin. Horrenbestez, horiek ukatzeko ebazpena arrazoituta egon behar da eta oinarria abenduaren 23ko 18/2008 Legea garatzen duten urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren eta urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuaren xedapenetan jasotakoa izan behar da, batik bat 5.-8.,12. eta 21. artikuluetan xedatutakoa, edo hala badagokio, udal bakoitzeko prestazio ekonomikoen araubide espezifikoan xedatutakoa. Ukatze hori administrazio egintza bat da, eta APEL-en 35. artikuluan xedatutako baldintzak bete behar dira, gertakariak eta zuzenbidezko egitateak laburki aipatu behar direlarik.
11. Horrek ez du esan nahi udalek, beharrianaren egoera larria eta errealia baloratzerako orduan, beste irizpide batzuen artean, pertsona horren jokaera edo Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidea eteteko edo iraungitzeko erabilitako arrazoiak kontuan hartu behar ez dituenik.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarri duenarekin bat etorriz, honako gomendio hau egin diegu EAEko udalei:

GOMENDIO OROKORRA

Arartekoaren gomendioa da, EAEko udalek, gizarte larrialdiko laguntza eskariak izapidetzean, **benetako premia egoera dagoela eta laguntza horiek egoera horri erantzuteko egokiak direla egiaztatzea**, urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 21. artikuluan (urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuak emandako idazketan) ezarritako irizpideak erabiliz eta **adingabeen interes gorena aintzat hartuta**.

Era berean, gizarte larrialdi laguntzen eskariak baloratzean, Arartekoaren gomendioa da albo batera uztea diru-sarrerak bermatzeko errentaren etetea edo iraungitzea eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren iraungitzea, aurreko guztiekin bat eginez, eta bereziki, ez direlako administrazio egitate irmoak, izan ere, berraztertze aukerazko errekurtsoa jarri daiteke horien aurka.

Edonola ere, Arartekoak berretsi egin du udaletako gizarte zerbitzuen eta Lanbideren artean **koordinazio arina eta eraginkorra** egotea beharrezkoa dela, gizarteratze prozesuetan arreta integratua eta sektoreen artekoa emateko, eta Arartekoak, **bereziki azpimarratzen du neurri egokiak hartu behar direla, zenbait udalek proposatu duten moduan**, eta hori guztia, saihesteko diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskariak ebazten atzerapenak egonez gero, onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten pertsonak diru-sarrera ekonomikorik gabe geratzea beraien oinarrizko beharrianak betetzeko.

Bukatzeko, Arartekoak udaleko gizarte zerbitzuen zailtasunak aipatu nahi ditu bizirauteko diru-sarrera ekonomikorik ez duten pertsonei edo etxebizitzarik ez dutenei arreta ematerako orduan, izan ere, zaila da gizarte esku-hartze funtzioa egikaritu ahal izatea, hain zuzen ere, **interakzioarekin, laguntzarekin eta gizarteratzearekin lotura handiagoa duena**. Horri dagokionez, interesgarria da udalek gomendio orokor honetan adierazten diren gaur egungo sistemari buruz adierazitakoak kontuan hartzea, eta hori guztia, sistema hobetzeko eta indartzeko hausnarketa eta analisisa gauzatu daitezten.

Gainera, lan hori egitea are beharrezkoagoa da orain, Sars-Covid-19 koronabirusak sortutako osasun krisiari aurre egiteko neurrien inpaktua kontuan hartuz, izan ere, horrek guztiak, argi utzi du oso garrantzitsua dela udaletako gizarte zerbitzuak sendoak, arinak eta hurbilekoak izatea, pertsona eta familia zaugarrienei arreta emateko hain zuzen ere.

Arestian egindako hausnarketak eta gomendioak kontuan hartu beharko lirateke etorkizunean araudia aldatzen denean, bertan argi adieraz dadin administrazio publiko eskudunek ematen dituzten prestazio ekonomikoen arteko bateragarritasuna, segurtasun juridikoaren eta lurralde orekaren mesedetan.

ararteko

Herriaren Defendatzailea

Defensoría del Pueblo